

Nafarroako Esaera Zaharrak. Goldaratz, Eraso, Etxaleku.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Goldaratz, Eraso, Etxaleku.

- 935 *Danbolin berriak, soñu eder.*
Saltzalle berriak ere bai.
- 939 *Etxeko andrea nongo, pestaleak ango.*
- 940 *Etxe uts, gerra uts.*
Alako etxetan lasto pixka baten sua, eta elkarren arteko gudua izaten. Beste leku askotan ere bada esaera ori. Oihenart-ek: "Etxe hutsa, aharra hutsa" (171).
- 941 *Ez autsi ta ez urratu dago.*
Ez aurrera ta ez atzera, ezbaian, zalantzan.
- 958 *San Marko, bost kapusaiekin otzak il emen zen.*
San Marko apirillaren 25'ean da; orduan ere otz aundiak egiten zenbait aldiz. Olatsu Luzaiden ere.
- 954 *Ogeitaamarreko ederra izan dugu.*
Bazkari ederra izan dugu.
- 959 *San Markosetarako narra bat ostu gorde bear da.*
Elurraren beldurrez.
- 960 *Sasi txikitik atera ta aundian sartu.*
On ez den eginbide bat utzi, ta makurragoa artu.
- 961 *Sasik ere baditu begik.*
Gutxien uste den tokian ikusleak, zelatariak izaki.
- 964 *Puntua egin nai baduzu, arie jostorratza baño luziago bear duzu.*
Besten utsegiñak eramaten jakin bear. Olatsu Oihenart-ek ere, eta beste tokietan.
- 965 *Obe da artzeko txarra, emateko ona baño.*
- 966 *Obe dik eun konbidetu, batei eman baño.*
- 967 *Ori, zakur ixillen antzekoa duk.*
Kaltea ixilka egiten duenaz.
- 968 *Pastakorik (astorik) nai ez, eta sillekorik (zaldirik) allaatu ez.*

Aberats nai, baña ezin.

969 *Patxaran-urtea, elur-urtea.*

970 *Pazkotan il-berri: azaroa egiteko bearako dittuk idi berrik. Pazkoa il-zar: askiko ttuk (dituk) edozein bei zar.*

971 *Zar samarra baitzera, merke(a)go egingo duzu lana? esan zion apezak. Eta besteak erantzun: Berori zar samarra delako, merkeago ematen al du meza?*